

Bajo Ulloari Opera Prima saria eman diote New Yorkeko kritikoeak

GASTEIZ

Juanma Bajo Ulloa zuzendari gasteiztarraren 'Tximeleta he-goak' filmeari aurtengo Opera Prima saria ematea erabaki du aho batez New Yorkeko Ikuskari Kazetarien Elkarteak, ACE izenekoak, antolatzaileek atzo bertan aditzera eman zuten. El-karte honek urtero antolatzen duen ospakizunean emango diote saria gasteiztarrari eta, aurtengoan, datorren martxoaren 27an egingo dute sari banaketa.


Bajo Ulloaren 'Tximeleta he-goak' filmeak Donostiako Urrezko Maskorra jaso zuen orain dela bi urte jadanik eta hamaika txalo eta kritika on izan zuen estreinaldi garaian. Belaunalditik belaunaldira pasako den famili tragedia gordina kontatzen du gasteiztarraren *opera prima*-k, aitona-gizonezkoak nahi eta oinordekoak emakume izaten direnean lehertzeraino helduko den drama gogorra, hain zuzen. Silvia Munt, Fernando Valverde, Karra Elejalde, Susana Garcia eta Laura Vaquero ume koxkorrak hartu zuten parte aktore lanetan filmean, eta Eduardo anaiaren konpainian idatzi zuen Juanma Bajo Ulloak gidioia. Klaustrofobikoa, itxia, gordina

eta krudela adjetiboak erabili zituen kritikak bere garaian zinemagile gaztearen obra definitzeko orduan. Donostiako Sariak hainbat zurrumurru harrotu zuen zuzendariaren jatorria zela medio, baina kanpoan ere onartu dute pelikularen balioa.


SAUTET IRABAZLE FRANTZIAN

Frantziako Zinema Akademia Nazionalak, bere aldetik, Claude Sauteten 'Un coeur d'hiver' filmeari eman dio iazko filmerik onenaren saria. Daniel Auteuil, Emmanuelle Beart eta Andre Dussolierrek hartzen dute parte obra sentibera eta samur horretan. Sari banaketa Pariseko jatetxe batean izan zen eta Micheline Presslek eman zion garaikurra Sauteti, filmeko antzezle eta ekoizleez inguratuta zegoen bitartean. Akademiako lehendakariak idatzi baten bidez zabaldu zuenez, «gutxitan ikusi dut horren maitasun harreman zirrargarrik hain medio eskasekin eginga». «Zinemagile frantses handi baten aparteko artea kon-sagratzen du», dio komunikatuak beste atal batean.

Frantziako Zinema Akademia duela hamar urte sortu zen eta hogeitaemezortzi kidez osaturik dago gaur egun.



ACE elkarteak saritu du orain Juanma Bajo Ulloaren lana. AITOR BAYO



Asteburuan 20.00etan Donostiako Victoria Eugenia izango da Ur taldea.

INAKI ERKIZIA

Shakespeare gaur eta hemen

Ur-en 'El sueño de una noche de verano' lana asteburuan Donostian

Shakespearearen komedia Shonen irakurketa propioa egin du Ur taldeak. Testuaren ikerketa zorrotza egin ondoren, antzerki hizkuntza desberdinetara moldatu du, ikuskari bateratzaile eta gaur eguneko bat sortuz. XVI. mendeko komedia honen argi eta itzalak taularatu ditu dantza garaikidea, clown teknika, gorputz espresioa, antzeppen shakespearearra eta eszenografia singleaz baliatuz.

LOREA AGIRRE / DONOSTIA

Shakespeare gaur eta hemen edota maitasuna lehen, orain eta gero. Beti. Azken finean, antzezlari komiko honen gaia maitasunean eta honek izan ditzakeen aldaera guztietan oinarritzen baita. Helena Pimenta Ur taldeko zuzendariaren esanetan, «maitasuna da ardatza. Maitasunaren aldaera posible guztiak eta honek sor ditzakeen sentimendu krea-tzaile nahiz suntsitzaile guztiekin. Baina ez da inolaz ere, alde bakarreko maitasuna. Argiak eta itzalak ditu. Azken finean tolerantzia eta intolerantzia istorio bat da, maitasun suntsitzaile eta sortzailearen arteko borroka». Donostiako Victoria Eugenia antzokian ostiralek igandera arratsaldeko 8etatik aurrera ikusgai izango da lan hau.

Helena Pimenta arduratu da XVI. mendeko testu komiko honen moldaketa egin eta antzezlana zuzentzen. «Irakurketa propioa egin dugu. Hau da testu horretako zenbait gauza hartu eta sakondu egin ditugu, azpimarratu eta gero antzerki hizkuntza konkretu batera moldatu. Gure irakurketa hala ere ez da kapritxosoa, guk bizi izandakoari, ikerketa lan bati eta gaurkotze

nahi bati erantzuten dio. Ez dugu handikeriazko lan bat egin nahi izan eta beraz ez dugu testua literalki taularatu. Aukeratu ditugun gaiak ulergarriak egin ditugu, gaur egungo legeetara jarriaz. Eta ikuslegoak ere horrela jasotzen du».

HIRU MAILATAKO ANTEZLANA

Antzezlana hiru mailatan banatzen da. Lehenengoan, amoranteena da. Antzeppen errealista baten bidez egiten da baina ikutu poetiko ugari ditu. Bigarrenean, magia da nagusi. Hemen Shakespearek testuarekin adierazi zuena, Ur-ek dantzarekin eta gorputz espresioarekin adierazten du eta hirugarren mailan artisaunen istorioa dago. *Clown* eta mimo teknikak erabiltzen dira horren taularatzeko.

Erronka gogorra izan da Erretereriako taldearentzat Shakespeare taularatzeko. Urtebete testua ikertzen eta ulertzen aritu ondoren, tailer desberdinak antolatu zituzten taldekideek. Arte martzialak, dantza garaikidea, antzeppen shakespearearra,

ahotsa eta gorputz espresioa espezialistak ekarri zituzten. Erronka hori oraindik ere hortxe dago, taldearen harridurarako antzezlana izan duen arrakastari erantzun behar baitiote. «Beldur ginen guk adierazi nahi genuen hori, edota testutik hartu dugun zati hori ulertuko zen edo ez. Baina asmatu dugu, nahiz eta zaila den azaltzea zergatik eta zein arrazoiri zor zaion hori. Noski beti garantia bat da Shakespeare atzetik izatea. Dena den guk dakargun berritasuna, bate-tik maitasunaren adierazpen guzti horiek modu errealean eman ditugula da. Bestetik antzerki hizkuntza oso desberdinak integratu ditugula. Hau da hizkuntza idatzia gorputz hizkuntza bihurtu dugula. Eta azkenik aipa daiteke bitartekoen ekonomia. Elementu gutxiarekin antzezlari honen iradokizun maila oso handia da. Antzerkiak ikusgarria izan behar duen definiziotik aldentzen gara. Eta gainera neurri ertaineko produkzio bat da, bati-garestia ez dena eta uste dut guzti horrengatik hartu dela hain ondo».

Atzerriko bideak

L.A. / DONOSTIA

Joan den urteko ekainean estreinatu zuen Ur antzerki taldeak Shakespearearen 'Sueño de una noche de verano' antzezlana. Geroztik, sei hilabetetan 44 emanaldi eskaini ditu eta 17.000 mila lagun aurrean antzeztu. Euskal Herriaz gain, Espainian eta Argentinan ere taularatu du. Datoren sei hilabeteetarako beste 60 emanaldi ditu hitz emanda, haue-tarik zenbait Europan eta Hego Amerikan.

Eta hauek dira, Euskal Herrian

egiten den antzerki atzerrian, lurralde urrunetan, eman dituen lehen urratsak. Jasotako sariak, eta antzerki kritikak eta ikuslegoak ondo baino hobeto hartu izanak, noski bide hori zabaltzen laguntzen du. Baina gainontzeko meritu guztiak taldearenak dira. Batetik antzezlarekin asmatu duelako eta bestetik ahalik eta leku gehienetara mugitzen jakin duelako. Erakundeen laguntzarik ezean, jokatu, eszenografia egin, zuzendu edo argizatzen dutenak zabaldu behar dituzte halabeharrez atzerriko bideak.

Egunkaria

GRAFISTA BEHAR DA

EGUNKARIAko infografia sailerako

✓ Ezinbestekoa da :

- Macintosh-eko "Freehand" diseinu programan aritua izatea.

✓ Kontuan hartuko da:

- Komunikabideetan esperientzia.
- Kazetaritza ikasketak.

(943) 37 15 45 telefono zenbakira deitu.